


Europako hainbat herrialde kaltetu ditu **Salmonella Standley**-ren agerraldiak. Zehazki, guztira **167 kasu egiaztatu dituzte** eta 254 susmagarriak dira. Honako hauek dira gaur arte kaltetutako herrialdeak: **Austria, Belgika, Alemania, Txekiar Errepublika, Polonia eta Hungaria.**

Gaur egunera arte bildu den informazio epidemiologikoaren eta mikrobiologikoaren arabera, kutsadura-iturri nagusia **indioilar-haragia** izan liteke, baina ezin izan da baztertu beste haragi mota batzuen inplikazioa; besteak beste, txerri-, behi- zein oilasko-haragiarena.

### AGERRALDIAREN EZAUGARRIAK

2012ko irailaren 14an, Europako Batzordeak EFSAri (Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentzia) eta ECDCri (Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroa) laguntza zientifikoa eta teknikoa eskatu zien, agerraldiaren iturria atzemateko.



Irailaren 20an, erakunde horiek jakinarazpen bat argitaratu zuten. Bertan, honako [ondorio eta aholku hauek](#) eman zituzten:

- Agerraldiko kasuek ez dute Europar Batasunetik (EB) kanpora egindako bidaien aurrekaririk salmonellosiaren ohiko inkubazio-aldian. Beraz, aurkikuntzen arabera, **agerraldia EBko zenbait herrialdetan ari da gertatzen.**
- Giza kasuen epidemiologiak adierazten du transmisioa iturri erkide baten edo iturri anitzen iraunkortasunaren ondorio dela EBn. Iturri horiek kutsatu dituzten anduiak ezin dira Xba1-PFGE-ren (Pulsed Field Gel Electrophoresis-Elektroferesi gel-aren teknika molekularra eremu pulsatuetan) bidez bereizi.
- Badirudi agerraldia eragin duen bakterioak patroia genetiko berezia duela, bai eta bestelako ezaugarri genetiko ezagunak ere. Horren ondorioz, erresistentea da **azido nalidixikoaren aurrean eta murriztu egiten du ziprofloxazinoarekiko**

### duen minberatasuna.

- Bildutako informazio epidemiologikoaren eta mikrobiologikoaren arabera, **indioilarrak ekoizteko katea da agerraldiaren iturria.** Nolanahi ere, ezin da baztertu elikagaien eta animalien beste iturri batzuen inplikazioa (besteak beste, behi-, txerri- zein oilasko-haragiarena).
- Oraindik ez da ezarri kutsadura-iturria merkatutik kentzeko neurririk; beraz, **baliteke gizakien artean S. Stanleyren kutsadura kasu gehiago agertzea.**
- Nabarmendu egin behar da oso garrantzitsua dela **elikakateko** eragile guztiek, abeletxetik hasi eta kontsumitzailearengana iritsi bitarteko agente guztiek, **higiene-praktika egokiak** aplikatzea.

### KASUEN KRONOLOGIA

- 2012ko ekainaren 29an, Belgikako Salmonellaren Erreferentziatzeko Zentro Nazionalak jakinarazi zuen S. Stanleyk kutsatutako gizakien kopuruak gora egin zuela nabarmen 2012an. Igoera hori azido nalidixikoarekiko erresistentea den eta agerraldiko anduitik bereizi ezin den PFGE patroia duen andui batekin lotu zen.
- Austriak, Txekiar Errepublikak, Alemaniak, Hungariak, Eslovakiak eta Erresuma Batuak egiaztatutako kasu guztiek dute agerraldiko andutik bereizi ezin den profila.


1. taula: *Salmonella* Stanleyren kutsaduren banaketa eta kaltetutako estatu kideen egiaztapen-egoera, 2011ko abuztuaren 1etik 2012ko irailaren 18ra bitartean. (Iturria: EFSA/ECDC Multi-country outbreak of *Salmonella* Stanley infections Update).

	Austria	Belgika	Txekiar Errepublika	Alemania	Hungaria	Eslovakia	EB	GUZTIRA
Egiaztatu gabe	125	0	4	45	75	5	0	254
Egiaztatuta	34	29	13	13	76	1	1	167
GUZTIRA	159	29	17	58	151	6	1	421

- 2011ko abuztuaren 1etik eta 2012ko irailaren 18ra bitartean, kaltetutako zazpi estatu kideek 421 kasu jakinarazi dituzte guztira, eta horietatik 167 (% 40) egiaztatu egin dira.
- S. Stanleyk, normalean, ez du kasu kliniko larrikeria eragiten, eta herrialde bakar batek ere ez du jakinarazi halako kasurik.
- Kasuen kopurua 2012ko urtarrilean hasi zen gora egiten herrialde gehienetan, eta bigarren gorakada 2012ko maiatzean gertatu zen.
- Hileko erabateko kasuen kopuruak gora egin du 2012ko apirilaz geroztik.
- Atzera begirako azterketek erakutsi zuten 2011ko abuztuaren Hungariar atzemandako kasuetan agerraldiko anduia dagoeneko isolatu zela.

**KASUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA**

- 2011ko abuztuaren 1etik 2012ko irailaren 18ra gaixotasunak Austrian eta Hungariar izan ditu intzidentziaz handienak.
- Tasa txikiena, berriz, Erresuma Batuari dagokio: kasu egiaztatu bakarra gertatu zen, 2012ko urtarrilean.



Iturria: EFSA/ECDC Multy-country outbreak of *Salmonella* Stanley infections Update.

- Alemania, Hungaria eta Eslovariako Errepublikako kasuak ez dira geografikoki multzokatzen.
- Belgikari dagokionez, kasuak herrialdearen iparraldean jakinarazi dira. Txekiar Errepublikako kasuak, bestalde, ekialdean jakinarazi dira.
- Austrian kasu gehienak Austria Garaian gertatu dira, eta horrek badu arrazoi bat: tokiko bi agerraldik Austriako kasu guztien % 54 egiten zuten (171tik 93).
- Erresuma Batuko kasu bakarra Ingalaterrako ekialdean dago.

**S. STANLEYK GIZAKIEI ERAGINDAKO GAIXOTASUNAREN AURREKARIAK**

*Salmonella* Stanley da gizakien infekzioei

lotutako serotipo sarrienetako bat **Asiako hego-ekialdean**.

**Tailandian** giza salmonellosiaren serotipo ohikoena izan zen **2002 eta 2007** urteen artean; hots, guztira, bertako salmonellosi-kasu guztien % 11.

**2001etik 2007ra bitartean** S. Stanley honako herrialde hauetako **20 serotipo sarrienetako** bat izan zen honako herrialde hauetan: **Japonia, Malasia, Filipinak, Kroazia, Danimarka, Finlandia, Herbehereak** eta **Kanada**.

Ezerk ez du adierazten kasu horien aurkezpen klinikoa eta *Salmonellaren* beste serotipoek eragindakoak desberdinak direnik, batik batik larritasunari dagokionez.

**Asiako hego-ekialdetik kanpo**, S. Stanley eragindako honako infekzio-agerraldi hauek jakinarazi dira, giza gastroenteritisaren eragile gisa:

- **1995**ean: S. Stanley bidezko infekzioaren nazioarteko agerraldia **AEBetan** eta Finlandian. Hazi kutsatuekin ereindako alpapa-kimuei zegokien.

- **1999**an: S. Stanley eragindako infekzio-agerraldia, **AEBetako** haurrak zaintzeko zentro batean. Susmoen arabera, jatorria indioilar errea zen.

- **2001**ean: S. Stanley eragindako infekzioaren nazioarteko agerraldia (**Kanada, Ingalaterra, Gales, Eskozia eta Australia**) inportatutako kakahueteen kontsumoarekin lotu zen.

- **2006**ko irailetik **2007**ko otsailera S. Stanley eragindako gaixotasun gastrointestinalaren nazio-mailako agerraldia gertatu zen **Suitzan**. Guztira 82 gizaki kutsatu ziren eta, horietatik, 23 ospitalera eraman behar izan zituzten. Kasuak gazta leuneko marka jakin baten kontsumoari lotuta zeuden, eta agerraldi hori izan zen, hain zuzen ere, Europan inportatu gabeko elikagaiekin lotutako S. Stanleyaren lehenbiziko agerraldi erregistratua.

- **2006**an S. Stanley eragindako infekzio-agerraldia gertatu zen **Suedian**, inportatutako

lima-hostoek eraginda. Elikagaiak prestatzean atzemandako gabeziek agerraldia lagundu besterik ez zuten egin.

- **2007**an S. Stanley **Suedian** eragindako infekzio-agerraldiak 51 gizaki eragin zituen, eta guztiak egon ziren alpapa-kimuekin lotuta. Jatorria barne-prozesamenduko lantegi batean aurkitu zuten, eta behar besteko tratamendu termikoa ez erabiltzea faktore lagungarria izan zen agerraldia gerta zedin.

- **2011**n S. Stanley eragindako infekzio-agerraldi bat gertatu zen **Austrian**, indioilarrarekin egindako kebabaren kontsumoaren ondorioz.

### S. STANLEYREN JAKINARAZPENAK ELIKAGAI ETA PENTSUENTZAKO ALERTA AZKARREKO SISTEMAREN BIDEZ (RASFF)

- ❖ **2005**etik **2012**ra S. *stanleyi* dagozkion **17 RASFF jakinarazpen** egin dira.

- ❖ Kasu gehien jatorria **Tailandiatik ekarritako elikagaiak** izan dira, baina Alemania, Holanda, Vietnam, Brasil eta Txinatik ekarritakoek ere eragina izan dute.

- ❖ Honako hauek izan ziren kutsatutako elikagai eta pentsuak: maskotentzako elikagaiak, koltza-talo ekologikoa, mania, izoztutako behi-haragia, pak Paew (Tailandiako belarrak), basoko betel mendiko hostoa (belarrak), ur-belarra, *Mu-Err* zizak, "pak pang" (Tailandiako txilin txinatarrak), "kaffir" lima-hostoak (belarrak), albahaka gozoa, espinaka, perrexil freskoa, "pennywort" freskoa, limoi-belarra (belar freskoak), "hing choi" (hiru koloreko Amaranthus), menda freskoa eta oilaskoa.

### Esteka interesgarriak:

→ [ECDC](#)

→ [EFSA](#)